

BIZIKLIK!

Funtsezko baliabideak

Zein dira behar ditugun elementu garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

- **Baliabide fisikoak:** lanerako lantegia, bulegoak, biltegiak, gailu elektronikoak (ordenagailuak, telefonoak, inprimagailuak...) eta produktuak egiteko materiala (makinak, metalezko piezak, elektronikako materiala, produktua garraiatzeko kutxak eta babesteko materialak...).
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** partaide guztiok ditugun elektronika, elektrizitatea eta teknologiako ezagutzak; Naroak dituen webguneak diseinatzeko ezagutzak, Enarak dituen salmentarako eta antolaketarako abileziak, eta Aneren eta Mariaren diseinatzeko sormena. Produktuak sortzeko eta helarazteko langileak eta garraiatzaileak behar ditugu ere.
- **Finantza-baliabideak:** gure aurrezkiak, produktuen irabaziak eta inbertsoreengandik lortutako dirua.

